

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MENDAROKO UDALA

Iragarkia

Mendaroko Alkateak, 2023ko otsailaren 8ko 26/2023 Alkateza Dekretuaren bidez, honako ebazpen hau eman du:

Lehenengoa. Mendaroko bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak hobetzeko diru-laguntzak emateko deialdia onartzea.

Bigarrena. 35.000,00 euroko gastua baimentzea, 1 0321.780.01.152.20 2022 aurrekontu-partidaren kargura, ebazpen honen ondoriozko betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko.

Hirugarrena. Diru-laguntzen deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio-bidea amaitzen du. Interesdunek zuzenean aurkeztu ahal izango dute administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldeaz aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke udal honetako alkateari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoak jarri harik eta berraztertze-errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezezpena gertatu arte. Hori guztia, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso jartzeari kalterik egin gabe.

Mendaro, 2023ko otsailaren 8a.—Iñaki Arregi Uria, alkatea.
(792)

Mendaroko bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak hobetzeko obretarako diru-laguntzak emateko deialdia.

Lehenengoa. Araudi erregulatzailea.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak emateko betetzen den araubidea hauxe da:

— Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

— 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

— Mendaroko Udalaren diru-laguntzak emateari buruzko araudia, Udal Osoko Bilkurak 2009ko azaroaren 26an onartua eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2009ko abenduaren 30ean argitaratua.

— Deialdi honen oinarriak, Udal Osoko Bilkurak 2021eko maiatzaren 27an egindako bilkuran onartuak, 2021eko abuztuaren 5eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak (zk. 148).

— Deialdi honetako klausulak.

— Ordezko moduan, administrazio-zuzenbideko gainerako legeak aplikatuko dira.

AYUNTAMIENTO DE MENDARO

Anuncio

El Alcalde de Mendaro por Decreto de Alcaldía 26 /2023, de 8 de febrero, de 2023 ha adoptado la siguiente resolución:

Primero. Aprobar la convocatoria adjunta para la concesión de subvenciones en materia de mejora de edificios residenciales y viviendas en Mendaro.

Segundo. Autorizar un gasto de 35.000,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1 0311.780.01.152.20 2022, para hacer frente a las obligaciones económicas derivadas de la presente Resolución.

Tercero. Publicar la convocatoria de subvenciones en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Alcalde de este Ayuntamiento, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Mendaro, a 8 de febrero de 2023.— El alcalde, Iñaki Arregi Uria.
(972)

Convocatoria de la concesión de subvenciones para las obras de mejora de los edificios residenciales y viviendas de Mendaro.

Primero. Normativa reguladora.

La concesión de las subvenciones objeto de esta convocatoria se regula por:

— La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

— La Normativa sobre concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Mendaro, aprobada por el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 26 de noviembre de 2009, y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 30 de diciembre de 2009.

— Las Bases de la presente Convocatoria, aprobadas por el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 27 de mayo de 2021 y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 148, de 5 de agosto de 2021.

— Las cláusulas contenidas en la presente convocatoria.

— Supletoriamente, se aplicarán las restantes leyes de derecho administrativo.

Bigarrena. Dirulaguntzaren objektua.

DLOaren 23.2 artikulua eta dirulaguntza arautzen duten Oinarriek ezarritakoaren arabera, Udal honek, ondoren adieraziko diren egiteko hauetara zuzendutako dirulaguntzak emateko deialdia egiten du, eskaeraren urtean edo aurre-aurrekoan amaitutako obretarako:

1. Lerroa: Elementu komunei buruzko jarduerak:

a) Irisgarritasuna eraikinetan. igogailuak, maldak eta plataformak instalatzea eta egokitzea.

b) Fatxadak eraberritzea: eraikin baten fatxada edo fatxadak jatorrizko egoerara edo egoerara lehengoratzeta, konposizio-unitatea aldatu gabe eta egiturazko elementuetan eraginik izan gabe. Diruz lagundu ahal izango dira eraikuntza-soluzioak aldatzea dakarten birgaitze-obrak, fatxadaren jatorrizko baldintzak hobetzea dakartenak. Akabera-elementuak konpontzea, berrietzea edo ordeztzea ere sartuko da, hala nola entokatzea eta pintura.

c) Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak eskatutako lanak, ikuskaritzak eskatzen dituen lanak berehala, presa handiz edo presaz egin behar izanez gero, eta betiere teknikari kualifikatu batekin sinatzen baldin bada.

d) Efizientzia energetikoaren hobekuntza. Eraikinaren ingurutzaila termikoa hobetzeko jarduketak, proiektu teknikoa barne. Berokuntzarako edo hozketarako energia eskaria jaisteko jarduketak oro hartuko da eraikinaren ingurutzaila termikoa hobetzeko dirulaguntza jaso dezakeen jarduketatzat, fatxadan, estalkian edo ingurutzailako beste edozein paramentutan eta bizitegi eraikin kolektiboetan, familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza baktuetan edo ilaran lerrotatutako etxebizitzetan egiten bada.

e) Autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoa sortzeko instalazioak, bizitegi-eraikinetan. Autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoa sortzeko eguzki panel fotovoltaikoen instalazio berrietan egiten diren inbertsioak (familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzetan zein etxebizitza eraikin kolektiboetan egiten direnak) hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat, Energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuak arautzen duen modalitatearen batekoak badira.

2. Lerroa: Elementu pribatiboei buruzko jarduerak:

a) Etxebizitza egokitzea % 33 edo gehiagoko gorako mugikortasun mugatua edo zentzumenezko desgaitasuna duten pertsonentzat edo 65 urtetik gorakoentzat, (komuna, igarotzeko atekak, argi, ur eta gas sentsoreak, ke-detektagailuak, instalazio espezifikoak).

b) Kanpo arotzeria ordezkatzeta: leihoak, balkoiak, begiratoiak, fatxadaren lerrotik kanpo dauden elementuak eta erlatzak aldatzea. Aldatzean, elementu guztiak batera aldatu behar dira. Erabiliko diren materialak eta diseinua lehendik dauden antzekoak izango dira.

3. Lerroa: Alokairuaren sustapena:

a) Etxe bizitza hutsen alokairua sustatzea, Alokabide (ASAP) programan egindako bitartekaritza lanaren bidez merkatura atera ahal izateko. Etxebizitza hutsak egokitzeko lanak, gerora alokairuan jarri ahal izateko.

1 eta 2 Lerroetan xedatutako laguntzak bateragarriak izango dira. Aldiz, 3 atalean xedatutako laguntzak, 1 atalekoekin bateragarriak izango dira, baina 2 atalekoekin bateraezinez.

Diru-laguntzaren kopurua zehazteko xedearekin, diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira lanak egikaritzean izandako gastuak eta ordainsari teknikoek sortutako gastuak.

Diruz lagunduko dira eskaera egiten den urtean bertan edo aurreko urtean amaitutako obrak eta jarduerak.

Segundo. Objeto de la subvención.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 23.2 LGS y en las Bases que regulan la subvención, este Ayuntamiento procede a realizar la convocatoria para la concesión de subvenciones, para las obras finalizadas en el año de la solicitud o el inmediatamente anterior, que hayan tenido objeto:

Línea 1: Actuaciones relativas a elementos comunes:

a) Accesibilidad a los edificios: instalación y adecuación de ascensores, rampas y plataformas en inmuebles.

b) Restauración de fachadas: la restauración de la fachada o fachadas de un edificio a sus condiciones o estado original, sin que se produzca la alteración de la unidad compositiva, ni se incida en elementos estructurales. Serán subvencionables las obras de rehabilitación que supongan una modificación de las soluciones constructivas que a su vez deriven en una mejora respecto a las condiciones originales de la fachada. Estará incluidas también la reparación, renovación o sustitución de los elementos de acabado, como revoco y pintura.

c) Obras requeridas por la Inspección Técnica de edificios: siempre que las obras requeridas sean inmediatas, muy urgentes o urgentes, firmado por personal técnico cualificado.

d) Mejora de la eficiencia energética. Mejora de la envolvente térmica, incluido el proyecto técnico. Se considerarán actuaciones subvencionables de mejora de la envolvente térmica del edificio, las actuaciones cuyo objeto sea reducir su demanda energética de calefacción o refrigeración, mediante actuaciones en fachada, cubierta o cualquier paramento de dicha envolvente, llevadas a cabo en edificios de viviendas de tipología residencial colectiva, viviendas unifamiliares o bifamiliares aisladas o agrupadas en fila.

e) Instalaciones de generación de energía eléctrica fotovoltaica para autoconsumo en edificios residenciales Tendrán la consideración de actuaciones subvencionables las inversiones en nuevas instalaciones de paneles solares fotovoltaicos para la generación de energía eléctrica destinada a autoconsumo tanto en viviendas unifamiliares/bifamiliares como en edificios de vivienda colectiva, y en cualquiera de las modalidades reguladas mediante el RD 244/2019, de 5 de abril, por el que se regulan las condiciones administrativas, técnicas y económicas del autoconsumo de energía eléctrica.

Línea 2: Actuaciones relativas a elementos privativos:

a) Adecuación de la vivienda para personas con discapacidad de movilidad reducida o sensorial de igual o más de un 33 % o mayores de 65 años (baño, puertas de paso, sensores de luz, agua y gas, detectores de humo, instalaciones específicas).

b) La sustitución de carpintería exterior, ventanas, balcones, miradores, elementos salientes y cornisas, debiendo efectuarse la sustitución de la totalidad de los elementos. Se realizará con material y diseño similar a los preexistentes.

Línea 3: Fomento de alquiler.

a) Fomento de alquiler de viviendas vacías para su salida al mercado mediante la intermediación del programa Alokabide (ASAP). Obras que permitan la adecuación de viviendas vacías para su posterior alquiler.

Las ayudas contempladas en las Líneas 1 y 2 serán compatibles entre sí. Las ayudas contempladas en el apartado 3 son compatibles con las del apartado 1, y son incompatibles con las del apartado 2.

Serán gastos subvencionables al objeto de determinar el importe de la subvención, los gastos de ejecución de las obras y los de honorarios técnicos.

Se subvencionarán las obras y actuaciones finalizadas el año de la solicitud o el inmediatamente anterior.

Hirugarrena. Dirulaguntzak zein aurrekontu-kredituri egozten zaizkion eta, eskuragarri diren kredituen barruan, deialdi honetako gehieneko dirulaguntzen zenbateko osoa, edo, hori ezean, dirulaguntzen kopuru zenbatetsia.

Dirulaguntza hauek emateko udal aurrekontuaren zenbateko hauek erabiliko dira:

- Aurrekontu partida: 1 0311.780.01.152.20 2023.
- Zenbatekoa: 35.000 €.

Laugarrena. Onuradunek diru-laguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.

1. Diru-laguntzen onuradunak izan daitezke diru-laguntza ildo bakoitzarentzat jarraian zehaztutakoak, baldin eta diru laguntzeko moduko jardunen ordainketan parte hartzen badute, baldin eta DLOren 13. artikuluko 2. eta 3. atalek ezartzen dituzten debeku horietako baten eraginpean ez badaude:

a) Elementu komunetan egindako lanetan (1 Lerroa), zuzeneko onuradunak izango dira, hain justu, legez eraturako Jabeekideen Erkidegoak edo eraikinen jabeak, familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzaren kasuan. Honako atal honetan xedatutako laguntzen izapideak, bestalde, Jabeekideen Erkidegoaren ordezkariak egin beharko ditu; betiere, Jabetza Horizontalarren legean xedatutako modu eta baldintzetan.

b) Elementu pribatiboetan egindako lanetan (2 Lerroa), jabeak, gozatzaleak edo errentariak diren eskatzaileak soilik izan daitezke onuradun; edo bestela, lanak egin beharreko etxe bizitzari begira bestelako tituluren bat duten pertsonak. Nolanahi ere, pertsona fisikoak izan beharko dute, eta etxe bizitza horrek euren bizitegi eta ohiko egoitza izan beharko du. Egoera hori, hain zuzen, udal eroldaren bitartez egiaztatu ahal izango da. Azkenik, pertsona horien urteko diru sarrera haztatuak ezingo du, inondik inora urteko 35.000 eurotik gorakoa izan elkarbizitza-unitatea kide bakarrekoa bada, edo 65.000 eurotik gorakoa izan elkarbizitza-unitatea bi kidekoa edo gehiagokoa bada.

c) Etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko lanetan (3 Lerroa), onuraduna izango da lanak egin beharreko etxe bizitzaren jabea, gozamenduna, pertsona fisikoa.

Laguntza horien onuradunek konpromisoa hartu beharko dute zaharberitutako etxebizitza Alokabide (ASAP) programaren bitartez alokairuan jartzeko. Diru-laguntza jasotzen duen etxebizitzak gutxienez 5 urte eman beharko ditu Alokabide programan. Ezingo da laguntza hau jaso baldin eta 3 etxebizitzako edo hortik gorako ondarea badu eta/edo urteko 35.000,00 euro gordinetik gorako diru-sarrerak baditu kide bakar batek osatutako bizikidetz-unitateen kasuan, edo urteko 65.000,00 euro gordinak baditu bi kide edo gehiago badira.

2. Ezingo zaie diru-laguntzarik eman Mendaroko Udalarekin zorrak izateagatik presazko bidetik kobratzeko prozeduraren baten barnean daudenei, harik eta zor horiek egiazki aseta, kitatuta edo beteta izan arte, non eta ez dauden atzeratuta, zati-kitatuta edo horien egikaritzea etenda.

3. Deialdi honetan zehaztutako laguntzak jaso nahi dituzten eraikinetako titularrek EAT (eraikinetako azterketa tekniko) eginda eta aurkeztuta eduki behar dute laguntza hau jasotzeko eskaera egin aurretik, eraikinaren antzinatasuna dela eta nahitaezkoa bada. EAT aurkeztu beharko da Udalaren sarrera-erregistroan. Aurkezten denetik dirulaguntza eskaera egin arte dagoen gehieneko epea 10 urtekoa da.

Diru-laguntza ukatuko da EITn antzemandako akatsak ezarritako epeetan zuzendu ez direnean. Diru-laguntzaren eskarrian EITn atzemandako berehalako, oso premiazko edo premiazko akatsak konpontzeko behar diren obrak jaso beharko dira.

Tercero. Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones convocadas dentro de los créditos disponibles, o, en su defecto, cuantía estimada de las subvenciones.

Se destinará a la concesión de estas subvenciones las siguientes cantidades del presupuesto de la Corporación:

- Partida presupuestaria: 1 0311.780.01.152.20 2023.
- Importe: 35.000 €.

Cuarto. Requisitos que deberán reunir las personas beneficiarias para la obtención de la subvención.

1. Podrán ser personas o comunidades de propietarios/as beneficiarias de las subvenciones los que se indican, seguidamente, para cada línea de subvención, que participen en el pago de las actuaciones subvencionables, siempre y cuando no se vean afectados por ninguna de las prohibiciones de los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la LGS:

a) En las obras de elementos comunes (Línea 1) serán beneficiarias directas las comunidades de propietarios/as legalmente constituidos o las personas titulares de las edificaciones, en el caso de las viviendas unifamiliares y bifamiliares. La tramitación de las ayudas contempladas en el presente apartado deberá efectuarse por quien represente a la comunidad de Propietarios/as en los términos establecidos en la ley sobre Propiedad Horizontal.

b) En las obras de elementos privativos (Línea 2) serán personas beneficiarias los solicitantes que sean propietarias, usufructuarias o arrendatarias o que ostenten cualquier otro título de disfrute sobre la vivienda objeto de las obras, en todo caso, persona física, que constituya su residencia y domicilio habitual, circunstancia acreditada a través del padrón municipal, y cuyos ingresos anuales ponderados no superen en ningún caso, los 35.000,00 euros brutos anuales en el caso de unidades de convivencia integradas por un solo miembro o los 65.000,00 euros brutos anuales si son dos o más miembros.

c) En las obras para fomento del alquiler de viviendas vacías (Línea 3) será persona beneficiaria la propietaria, usufructuaria, persona física, de la vivienda objeto de las obras.

Las personas beneficiarias de estas ayudas deberán comprometerse a destinar la vivienda rehabilitada, al alquiler a través del Programa Alokabide (ASAP). La vivienda objeto de la subvención, deberá permanecer durante un plazo mínimo de 5 años en el Programa Alokabide. No se podrá optar a esta ayuda si se tiene un patrimonio de 3 viviendas o superior, y/o ingresos superiores a 35.000,00 euros brutos anuales en el caso de unidades de convivencia integradas por un solo miembro o los 65.000,00 euros brutos anuales si son dos o más miembros.

2. No podrán concederse subvenciones a quienes se hallen incurso en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Mendaro, hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

3. Los edificios cuyos titulares pretendan acogerse a las subvenciones objeto de la presente convocatoria, deberán haber realizado y presentado la ITE (inspección técnica del edificio), con anterioridad a la formalización de la petición de la correspondiente subvención, siempre que sea obligatorio por la antigüedad del edificio. La ITE deberá haber sido presentada en el Registro de Entrada municipal, en un plazo máximo de 10 años anterior a la fecha de presentación de la solicitud de subvención.

Se denegará la subvención cuando no se hayan subsanado en los plazos fijados las deficiencias detectadas en la ITE. La solicitud de subvención deberá contener las obras necesarias para subsanar las deficiencias de carácter inmediato, muy urgentes o urgentes detectadas en la ITE.

4. Era berean, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Eraikinaren azalera erabilgarri osoaren bi heren etxebizitzara bideratuta izatea gutxienez, zenbaketa horretatik kanpo geratzen da beheko solairuaren azalera.
- Eraikinak hamar urtetik gorako antzinatasuna izatea.
- Eraikina Hirigintzaren aldetik egokia izatea, udal-lizentzia lortzeko mugarik gabe.
- Eraikina aurri-egoeran, zati batean eraitsita edo barruan hustuta ez egotea.
- Obrarako udal-lizentzia izatea, hala dagokionean.

Fatxadak zaharberritzeko diru-laguntzetan, gainera, baldintza hauek bete beharko dira:

– Fatxadako elementuei tratamendu bateratua emango zaie (leihoak, balkoiak, itxiturak...). Ez da diru-laguntza emango aipatutako elementuren bat fatxadako beste elementuez bestelako kolore edo osaerakoa ez bada, salbu eta lizentzia eskatzeko aurkeztutako proiektuak elementu horiek ordeztzea eta fatxadaren baldintza estetikoak uniforme bihurtzea aurreikusten badu.

– Ez du urratuko eraikinen fatxaden eta estalkien baldintza estetikoak arautzen dituen udal-ordenantza.

– Ez du baimenik gabeko instalaziorik izango, hala nola antenak, errotuluak, gas-galdarak edo bestelakoak, ez fatxadan, ez barandaren gaineko balkoietan. Teknikari informatzaileek aztertuko dute ea elementu diskordanteak lizentziarik duen ala ez, eta ea legeztatu daitekeen ala ez.

– Ez dira diruz lagunduko aireztapen-patioetako edo eraikinen barruko beste patio batzuetako fatxadetako obrak.

5. Diru-laguntza bat eskatu eta onartu ondoren, ezingo da diruz lagundutako obra bererako beste diru-laguntzarik eskatu, hura emateko ebazpenaren datatik hamar urte igaro arte.

Bosgarrena. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk emandakoeekin; erakunde nazionalakoak; Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeak izanda ere; baldin eta eskuratutakoak diruz lagundutako jarduerak duen kostutik gorakoak ez badira, eta esandako dirulaguntza horien araudi erregulazionalak ezartzen dutena ahazteke.

Seigarrena. Prozeduraren instrukziorako eta ebazpeneko organo eskudunak.

Alkatetzaren ebazpena baino lehen, dirulaguntzak emateko dagokien zerbitzu teknikoaren aldeko txostena beharko da.

Zazpigarrena. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

Diru-laguntza eskaerak izenpetuko dituztenak interesatuak beraiek izango dira, edo, beraiek izan ezean, zuzenbidean balio duen beste edozein baliabide erabilita, haien ordezkapena egiaztatzen duten pertsonak, eskaerak 2023ko azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Dokumentazioa honako leku hauetan aurkeztu ahal izango da:

Presentzialki, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa, (Udaletxea, beheko solairuan).

Elektronikoki, udal webgunetik: www.mendaro.eus. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, lizenpe txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

4. Asimismo, se deberán reunir los siguientes requisitos:

- Que el edificio disponga de un mínimo de dos terceras partes de superficie útil total destinada a vivienda, quedando excluida de este cómputo la superficie de la planta baja.
- Que el edificio tenga una antigüedad superior a diez años.
- Que el edificio se encuentre adecuado urbanísticamente y sin limitaciones para la obtención de licencia municipal.
- Que el edificio no se encuentre en estado de ruina, demolido parcialmente o vaciado en su interior.
- Disponer de la correspondiente licencia municipal para la obra, cuando proceda.

En las subvenciones destinadas a la restauración de fachadas se deberán cumplir, además, las siguientes condiciones:

– Se dispondrá de un tratamiento unitario de los elementos de fachada (ventanas, balcones, cierres...). No se concederá la subvención en caso de que alguno de los elementos citados sea de color o composición diferente a los demás de la fachada, a no ser que el proyecto presentado para la petición de licencia prevea la sustitución de estos y la uniformización de las condiciones estéticas de la fachada.

– No contravendrá la ordenanza municipal reguladora de las condiciones estéticas de las fachadas y cubiertas de las edificaciones.

– No presentará instalaciones no autorizadas como antenas, rótulos, calderas de gas u otras, ni en la fachada ni en los balcones por encima de la barandilla. Por los/as técnicos/as informantes se analizará si el elemento discordante cuenta o no con licencia, y si es susceptible o no de legalización.

– No se subvencionarán las obras en fachadas de patios de ventilación u otros patios interiores de las edificaciones.

5. Una vez solicitada y concedida una subvención, no se podrá volver a solicitar nueva subvención por la misma obra subvencionada hasta transcurridos diez años de la fecha de Resolución de concesión de aquélla.

Quinto. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no se rebase el costo de la actividad subvencionada, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

Sexto. Órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento.

Previamente a la Resolución de Alcaldía, la concesión deberá obtener el informe favorable de los servicios técnicos correspondientes.

Séptimo. Forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.

Las solicitudes de subvenciones se suscribirán por las personas interesadas directamente o por las que acrediten su representación por cualquier medio válido en derecho y deberán ser presentados antes del 15 de noviembre de 2023.

La documentación se podrá presentar en cualquiera de los siguientes lugares:

Presencialmente en la Oficina de Servicio a la Ciudadanía (planta baja del Ayuntamiento).

Electrónicamente, a través de la página web municipal, www.mendaro.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta de lizenpe, etc.).

Horrez gain, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz. Correoseko bulegoetan aurkezten diren eskabideak Mendaroko Udalari zuzenduko zaizkio, kartazal irekian, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskabidea aurkezteko epearen barruan egin direla egiaztatu aurretik. Horixe da modu bakarra eskabideak postetxearen bulegoan entregatu diren egun berebean Udal Erregistroan sartu direla erakusteko.

Zortzigarrena. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea, eskaera egiten den egunetik zenbatuta, sei hilabetekoa izango da.

Bederatzigarrena. Dirulaguntza eskaerarekin batera ekarri behar diren dokumentuak eta argibideak.

Honako dokumentazio hau izan behar du dirulaguntza eskuratzeko eskabideak:

– Eraikinetan hobekuntza lanak egiteko eskaera-orria behar bezala beteta udal webgunean (www.mendaro.eus) eskuratu daiteke.

– Jabe Erkidegoaren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) edo jabearen NANA.

– Erkidegoko Idazkariak edo Idazkari administratzaileak egindako dokumentua, dirulaguntzaren eskaera izenpetu duen pertsona Jabe Erkidegoko lehendakaria dela dioen agiria udal webgunean (www.mendaro.eus) eskura daiteke.

– Erkidegoko Idazkariak edo Idazkari-administratzaileak egindako ziurtagiria, diruz laguntzeko eskatu den obra horiek egiteko Erkidegoak baietza eman duela dioen agiria udalaren webgunean (www.mendaro.eus) eskuratu daiteke.

– Eskatzailea zerga-betebeharretan egunean dagoela esaten duen ziurtagiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak luzatutakoa.

– Eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana.

– Hala dagokionean, Jabetza Erregistroko indizeen-zerbitzuak emandako ziurtagiria, jabetzan 3 etxebizitza edo gehiago ez izatearen baldintza betetzen dela egiaztatzen duena.

– Hala dagokionean, 18 urtetik gorako bizikidetzaren-unitateko kide guztien azken errenta-aitorpena, mugaeguneratutako azken ekitaldi fiskalari dagokiona, eskabidea aurkezten den unean.

Errenta-aitorpena egin ezean, hura aurkeztetik salbuetsita egotearen ziurtagiria eta mugaeguneratutako azken ekitaldi fiskaleko diru-sarrerak justifikatzeko dokumentazioa, eskabidea aurkezten den unean. Diru-sarrerarik ez badu, horren aitortpena.

– Jabe Erkidegoak duen Bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatzeko agiria, dirulaguntza hor ordaindu ahal izateko. Agiri hauetako edozein izango da baliozkoa: banku-laburpena aurrezki-libreta; banketxeak emandako ziurtagiria.

– Egindako obren fakturak eta ordainagiriak.

– Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa 40.000 eurotik gorakoa bada, eskatzaileak eskatu beharko ditu gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak, lanak egiteko konpromisoa hartu aurretik eskatutakoak, salbu eta lanen ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago egin ditzakeen nahikoa entitatek edo salbu eta lanak egiteko kontratua dirulaguntzen deialdia argitaratu aurretik sinatu bada. Justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza eskaerarekin batera,

Adicionalmente, por cualquiera de los medios señalados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Las instancias presentadas en las Oficinas de Correos, se dirigirán al Ayuntamiento de Mendaro, en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el funcionario o la funcionaria de Correos antes de ser certificadas dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro del Ayuntamiento en la fecha en que fueron entregadas en la Oficina de Correos.

Octavo. Plazo de resolución y notificación.

El plazo máximo para la resolución y su notificación será de seis meses desde la fecha de presentación de solicitudes.

Noveno. Documentos e informaciones que deben acompañarse a la petición de subvención.

La solicitud para la obtención de la subvención deberá contener la siguiente documentación:

– Solicitud de subvención para la realización de obras de mejora en edificios debidamente cumplimentada, según modelo disponible en la web municipal (www.mendaro.eus).

– Fotocopia del Documento de Identificación Fiscal (NIF) de la Comunidad de Propietarios/as o el DNI de la persona titular.

– Documento expedido por la persona que ostente la condición de Secretario/a o Secretario/a Administrador/a de la Comunidad, en el que conste que la persona que suscribe la solicitud ostenta la condición de Presidente/a de la Comunidad de propietarios/as modelo disponible en la web municipal, www.mendaro.eus.

– Documento expedido por la persona que ostente la condición de Secretario/a o Secretario/a Administrador/a de la Comunidad, en el que conste el acuerdo de conformidad de la Comunidad con la ejecución de las obras para las que se solicita la subvención modelo disponible en la web municipal, www.mendaro.eus o copia del acta de la Junta de propietarios/as.

– Certificación acreditativa emitida por la Hacienda competente de que la persona solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias.

